anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2013ko martxoaren 8a
11. urtea
492. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

Kirola

Frades eta Etxeandia faborito bihar, Durangoko duatloian > 18

Astebete greban, soldata murrizketen aurka

Abadiñon eta Berrizen lantegi bana dituen Mendiguren y Zarraua enpresako beharginek astelehenean ekin zioten greba mugagabeari, enpresak proposatzen duen soldaten %15eko jaitsieraren aurka > 6

Kepa Aginako

Gorakada antzerki taldeak lau sari jaso ditu FETEN jaialdian

Gijongo arte eszenikoen FETEN sariketan lau sari eskuratu ditu Abadiñoko Gorakada taldeak, Willy Fogen 'Munduari itzulia' lanarengatik. Julio Salvatierrak, esaterako, moldaketa onenaren saria jaso du. Alex Diaz abadiñarra eta Ze Garcia zuzendari onenaren sariagaz etorri dira etxera. Aritza Rodriguez zaldibartarrak eta Jose Cruz Gurrutxagak interpretazio onenaren saria jaso dute. Jose Ibarrondok, Javi Tiradok eta Javi Ullak, berriz, eszenografia onenaren saria eskuratu dute.

Durango > 2
EAJk erantzukizuna eskatu dio oposizioari aurrekontuetan

Berriz > 6
'Kantxa zati bat' egitasmoak galdeketa jarri du martxan

Izurtza > 6
Arbizoleako urbanizazio lanen barruan bidegorria egingo dute

Abadiño > 4
Eskola jantokietarako bestelako elikadura politika bat eskatu dute

Herririk herri

> DURANGO

Erantzukizuna eskatu du EAJk aurrekontuetan

Gobernu taldeak zirriborroa aurkeztu die taldeei; baliteke martxoko ohiko udalbatzarrean lantzea

> MARKEL ONAINDIA

2013rako aurrekontuak diseinatzeko prozesua hasi du Durangoko Udalak. Gobernu taldeak (EAJ alderdia) gainerako taldeei aurkeztu die zirriborroa eta, emendakinak egin ostean, baliteke martxoko ohiko udalbatzarrean eztabaidatzea. Aitziber Irigoras alkateak aurrekontu zirriborroaren berri eman du, Mari Jose Balier alkateordeak lagunduta. Esan du, bizi dugun egoerak "arduraz" jokatzea eskatzen duela, eta gainerako alderdiei erantzukizuna eskatu die aurrekontuak lantzeko prozesu honetarako. Inbertsio bako aurrekontua proposatu du EAJk. Irigorasek azaldu duenez, defizitik ez egoteko, udalek aurrekontua osatzeko mugak dauzkate ezarrita, eta Durangok 26,1 milioi eurokoa dauka. Gastu orokorragaz kopuru horretara ailegatuz gero, ezinezkoa ei da inbertsiorik egitea. Kopuru horretara heldu dira eta, horregatik, aurreko urteetako soberakinetik hartu gura dute aurtengo inbertsioak egiteko. San Faustoko zentro zibikoa eraikitzen hastea eta Urki-Hegoalde saihesbideko bigarren fasea dira aurrekontuen zirriborroak jasotzen dituen proiektu garrantzitsuenak Irigorasen ustez.

> Iaz ez ziren onartu aurrekontuak, eta 2011ko luzapenagaz jardun zuen udalak

> Aurreko urteetako soberakinetik hartu gura dute aurtengo inbertsioak egiteko

Gastua honela banatuko litzateke: 9,1 milioi euro udaleko pertsonalerako, 8,8 milioi euro ohiko gasturako, eta 8 milioi euro transferentzietarako. Irigorasek adierazi du, elkarteak ez kaltetzen saiatu direla: "Hitzarmenak lehenetsi ditugu udaleko ekintza propioen aurretik". Hitzarmen eta dirulaguntzen poltsa horretan 1,2 milioi euro gordetzea proposatu dute.

Iaz ez ziren onartu aurrekontuak, eta 2011ko luzapenagaz jardun zuen udalak. Aurtengoak onartzeko itxaropena agertu du EAJk.

Mari Jose Balier eta Aitziber Irigoras, goian, prentsaurrekoan. Azaroko udalbatzarraren irudi bat, behean.

Eider Uribe
Bildu

Egun jasaten ari garen egoera sozioekonomikoan, udalean ez daukagu herritarrak pairatzen ari diren arazoen eta horren ondorien informazio zehatzik. Testuinguru horretan, aurrekontuen proposamena erabat "kontinuista" da, helburu zehatzik gabeko aurrekontuak aurkezten dizkigute. Orain arte inbertsioak egiteko funtsezkoa zen sarrera eta gastuen aldea desagertu egin da azken bi urteetan. Udala proiektuak egiteko ahalmenik gabe geratu den arte. Gobernu taldeari exijitzen diogu aurrekontu hauek erretiratzeko, eta egoera honek herritarrei eragiten dizkien arazoak konpontzeko hartuko dituen erabakiak azaltzeko.

Idoia Agorria
PSE-EE

EAJk murrizketak proposatzen ditu ia arlo guztietan doikuntzak direla argudiatuz. Ulertzen ez ditugun salbuespenak daude: goi karguen arloan, 35.000 euro alkatetzako publizitate eta propagandara bideratzen jarraitzen dute. Ez dugu ulertzen lan arloa bultzatzera euro bakar bat ere ez zuzentzea, edo larrialdi egoeran dauden pertsonentzako atala ez handitzea. Aurrekontuen zirriborroak ez du inbertsiorik aurreikusten, baina aurretik sozialistek egindako lanari esker, Durangok alokairu sozialeko eta babeseko etxebizitzak ditu, San Fauston zentro zibikoa hasiko dute eta gobernu taldeak oztopoak jartzeari uzten badio, Urki hegoaldeko eraztuna izango dugu.

Juan Jose Gastañazatorre
PP

Durangoko Alderdi Popularrak 400.000 euroko kostua duten hamar emendakin aurkeztu dizkio 2013ko aurrekontu proposamenari. Lanera eta krisiaren ondorioak gehien pairatu dituzten langabetu eta etxe gabetuei bideratuta daude horiek.

EAJk emendakinetako batzuk behintzat kontuan hartzea espero dugu, susperraldi ekonomikora eta krisiari aurre egitera bideratutako diru-atalak indartuta. Besteak beste, Alderdi Popularrak etxe gabetuentzako 80.000 euro bideratzea proposatzen du. 50.000 euro laguntza zuzenetarako izango lirateke, esaterako, langabezian dauden pertsonek zergak ordaindu ahal izateko.

Dani Maeztu
Aralar

Aurrekontuak beste adibide argigarri bat dira Durangoko EAJren proiektu falta ikusteko. Aurrekontua begiratuta, inork ez luke esango larrialdi sozialeko egoera batean gaudenik. Teknikoek egiten duten zifren koadratze hutsa baita udal aurrekontua, irizpide politikorik gabea.

Barregarria iruditu zaigu ikustea, 2005ean eta 2007an onartutako bi proiektu, inbertsio nagusi bezala aurkeztea EAJren udal gobernuaren aldetik. 7,5 milioi euroko zorra daukan udala da Durango, eta proiektu estrategikorik gabea, soilik irudikerian eta propagandan pentsatzen duen gobernua daukana.

Ingurumen irizpideak zaindu beharko dira obretan

Obretarako ordenantza berria egin dute; EAEn, era horretako lehenengoa da Durangokoa

> MARKEL ONAINDIA

Durangon obretarako ordenantza berria egin dute. Kutsadura atmosferikoa eta akustikoa gutxitzea da asmoa. Hemendik aurrera, ingurumenagaz lotutako hainbat irizpide izan beharko dira kontuan obrak egiterakoan.

Zarata, amiantoa edota hautsaren inguruko neurriak ezarri dituzte, besteak beste

Zarata, amiantoa edota hautsaren inguruko neurriak ezarri dituzte, besteak beste. EAEn, era horretako lehenengo ordenantza da. Mari Jose Balier hirigintza zinegotziak adierazi du, ordenantza horregaz obrek eragindako arazoak amaitzea espero dutela: "Ordenantza hau prestatu dugu obren eraginez sortzen diren eragozpenei aurre egiteko, hala adierazi baitigute herritarrek behin eta berriro".

08:00etatik 21:00etara egin ahal izango dira obrak astegunetan, eta 09:00etatik 15:00etara zapatuetan; domeka eta jaiegunetan debekatuta egongo da. Amiantoa eduki dezakeen materialen bat topatzen badute, lanak bertan behera utziko dituzte. Ostean, amiantoa kentzeko plangintza bat egin beharko dute. Hormigoiari dagokionez, kamoien deskarga-ahoa itxita egon beharko da garraiatzean. Zaratarен kasuan, makinen soinua ez da 90 dezibelio baino handiagoa izango makinatik 5 metrora. Lanak orokorrean hartuta, 85 dezibeliokoa izango da muga hurbilen dagoen eraikina kontuan hartuta. Etxe barruan andenean, ezingo da 50 dezibeliotik pasatu.

Arrazakeriaren Kontrako Astea hasiko da astelehenean

> M.O.

Arrazakeriaren Kontrako Astea egingo dute Durangon, martxoaren 11tik 16ra bitartean. Nazio Batuen Erakundeak arraza bazterketaren kontrako eguna izendatu zuen martxoaren 21a, eta egun horren bueltan eratu dituzte hainbat ekitaldi udaleko immigrazio sailetik. Astelehenean hasiko da egitaraua, *Angeles de la guarda* erakusketaren

Eguenean amaituko dira ekitaldiak zine-forumagaz; 'Made in L.A.' ikusiko dute

inaugurazioagaz. Erakusketa udal liburutegian egongo da, eta gainerako ekintzak elkartegian egingo dituzte.

Martitzenean berbaldia eskainiko du Trinidad Vicente Torrado irakasleak, 18:30ean. Horren ostean, *Compañeras de viaje* dokumentala ere ikusi ahal izango dute bertaratutakoek. Eguaztenean, etxeko behargin en lan arautegiaz formazio saioa egongo da 18:30ean. Eguenean amaituko dira ekitaldiak zine-forumagaz; *Made in L.A.* ikusiko dute.

> ATXONDO

Bidegorrian konponketak egin ditu asteon Aldundiak

> JOSEBA DERTEANO

Azken asteetan noizerik noizera izan diren euriteek kalteak eragin dituzte bidegorrian. Lurjausi bat baino gehiago gertatu da bidegorrian, eta urak arrakalak ere egin ditu bidean. Aste honetan zehar, Bizkaiko Foru Aldundiko langileak ibili dira Santixatik Arrazolarako tartean, euriak eragindako kalteak konpontzen eta urak beren tokitik bideratzen, etorkizunean sortu daitezkeen arazoei aurrea hartzeko. Besteak beste, Sagarmiña inguruan lehenagotik zegoen lurjausi bat ere garbitu dute langileek.

Bestalde, martitzen arratsaldean, ez ohiko udalbatzarra egin zuten Atxondon. Bertan, Erralde hiltegia likidatzeko kapitala handitzea onartu zuten. Atxondok 27.000 euro onartu ditu zeregin horretarako: 14.000 urteko kuotarenak, eta 13.000 beste diru-atal batzuetatik bideratu dituztenak. Gobernu taldearen (Bildu) aldeko botoekin onartu zuten puntu hori; EAJ, ostera, abstenitu egin zen.

> DURANGALDEA

Enpresak dio greba eten ezean, ez duela negoziatuko

Mendiguren y Zarrauako langileek, ostera, greban jarraitzea erabaki dute

Mendiguren y Zarraua enpresak Abadiñon duen plantako langileak, atzo eguerdian. Kepa Aginako

> JOSEBA DERTEANO

Mendiguren y Zarraua enpresak Abadiñon eta Berrizen dituen fabriketako langileak greba mugagabean daude astelehenetik. Abadiñon, 130etik 97k bozkatu zuten grebaren alde, eta Berrizen, 100etik 81ek. Beraz, gehiengoak hala erabakita, langile denak daude greban.

Enpresako zuzendaritzak batzar irekia deitu zuen eguaztenean. Langileek enpresa kanpoan zeudela eta hara irteteko erantzun zieten, edo komiteko ordezkariekin hartu-emanetan jartzeko. Horren ordez, baina, honako hau jakinarazi die idatziz zuzendaritzak: %10eko soldata jaitsiera (%15ekoa zen orain arteko eskaintza) onartu behar dutela, eta greban dauden bitartean ez dutela negoziaziorik abiatuko. Langileek greban jarraitzea erabaki dute.

Iñaki Arrieta metal arloko ELAko arduradunaren esanetan, "enpresak erabakiak unilateralki hartu dituelako hasi dute greba langileek". Espainiako lan erreformak hori ahalbidetzen die.

Horren aurrean, langileek eskaera nagusi bi dituzte. Bata, soldata jaitsierarik ez aplikatzea. Eta bestea, orain arte izan duten itun kolektiboaren ordez, hitzarmen kolektiboa sinatzea, eta hitzarmen hori artikulu batzuekin blindatzea, lan erreformak ez diolako hitzarmenari eragiten. Esate baterako, artikulu batean soldata jaitsierarik unilateralki ez erabakitzea jaso gura dute.

> ABADIÑO

Eskola jantokietarako "bestelako elikadura politika" eskatu dute

Eskola jantokietako elikadurari buruzko manifestuagaz bat egin du udalak, aho batez

> ITSASO ESTEBAN

Eskola jantokietarako politika berri bat aldarrikatzen duen ekimenagaz bat egin du Abadiñoko Udalak. Iraunkortasun irizpideak oinarri hartzen dituzten jantoki kolektiboak bultzatzea eskatzen duen manifestuarekiko atxikimendua agertu dute udaleko hiru alderdiek.

Azken hamarkadetan eskola jantokietan izan den elikadura politika kritikatzen du manifestu horrek, hain zuzen, tokian tokiko ekoizleei zuzenean erosi beharrean, elikagaiak urrundik ekartzean oinarritzen den politika: "Eredu horrek urrundu egiten ditu herritarrak lurretik, tradizio gastronomikotik eta elikaduraren kulturatik".

> Iraunkortasun irizpideak oinarri dituzten jantoki kolektiboak bultzatzea eskatzen dute

Horri aurre egiteko, eskoletako jantokietan, nekazaritza ekologikotik lortutako sasoian sasoiko produktuak kontsumitzea eskatzen du Abadiñoko Udalak babestu duen testuak.

> Legez besteko proiektu bat aurkeztuko dute Eusko Jaurlaritzari eskari horiek egiteko

Bestalde, eskola jantokiko erabakiak sail arteko politikaren bitartez hartu beharko liratekeela aldarrikatzen du manifestuak: Hezkuntza sailaz gainera, eskola jantokien kudeaketan Osasun, Nekazaritza, edota Ingurumen sailak parte hartu beharko lukeela azpimarratzen dute testu horretan.

Ekimenaren bultzatzaileek aurreratu dute legez besteko proiektu bat aurkeztuko dutela Eusko Jaurlaritzari eskari horiek behar bezala egiteko.

> ZALDIBAR

Gaztetxearen 9 urteak ospatuko dituzte, bihar

Bazkaria eta kontzertua antolatu dituzte, besteak beste, Zaldibarko gaztetxearen urteurrenerako

> I.E.

Martxoaren 6an bete dira bederatzi urte Zaldibarko gaztetxea zabaldu zutela. Asteburuan ospatuko dute urteurrena, eta egitarau zabala prestatu dute ospatzeko. Kontzertua izango da, bihar: punk rocka jotzen duen eta 2012an *Mundu kodifikatuen atzean* diskoa kaleratu zuen Gernikako Sarkor eta Legazpiko D-Pintxos taldeko skalariak ariko dira, 23:00etan. Bestelako ekimenak ere antolatu dituzte, gainera, gaztetxearen bederatzigarren urteurrenerako: ping-pong txapelketa egingo dute, gaur, 22:30ean hasita. Bihar, bazkaritara batuko dira, 14:30ean, eta familia argazkia eta poteoa egingo dituzte iluntzean.

Urteurreneko ospakizunak igarota, zabalik daude gaztetxeko ateak bariku iluntzeroko asanbladetan parte hartu gura duten denentzako.

> OTXANDIO

Korrikaren inguruko jaia izango da martxoaren 17an

Korrikaren harira antolatutako lehen ekitaldia domekako bakarrizketa saioak dira, Mainondon

> JOSEBA DERTEANO

Korrikaren harira Otxandion sortu duten batzordeak egitarau zabala antolatu du datozen egunetarako. Domekan, 19:00etan, *Euskalduna naiz eta arraro nago* bakarrizketa saioak egongo dira Mainondoko gimnasioan.

Hilaren 17rako Korrikaren inguruko jaia antolatu dute goizetik eguerdira arte. Goizeko 11:30ean, Korrikaren inguruko tonbola abiatuko dute. 12:00etan, gaztetxoei begirako jolasak egingo dituzte plazan. Ondoren, 12:30 inguruan, pintxo jana egiteko aukera eskainiko dute, eta 13:30ean, Korrikaren aurkezpena egingo dute.

Martxoaren 20an, Korrika Otxandiotik sartuko da Durangaldean. Aurreikusitako ordutegian badabiltza, 11:58an igaroko da. Korrika Baionan amaituko da hilaren 24an, eta bertarako autobusa antolatu dute: udaletxean eman daiteke izena, hilaren 20a baino lehen.

> IURRETA

Bertso eskola berpiztu gura dute, bi-hiru urte geldi egon ondoren

Martxan jartzeko batzarra antolatu dute Goiuria kulturgunean, martxoaren 14rako, 20:30ean

> AITZIBER BASAURI

Bertso eskola berpiztu gura dute Iurretan, eta horretarako lanean hasita daude herriko bertsolari eta bertsozaleak. Eskola berriro martxan jartzeko lehenengo batzarra ere deitu dute: datorren martxoaren 14an izango da, Goiuria kulturgunean. Hitzordua 20:30ean izango da.

Badira bi-hiru urte Iurretako bertso eskola geldi dagoela, eta berriro berrabiarazi gura dute, Eneko Abasolo *Abarkas* bertsolariak azaldu duen moduan: "Betidanik izan dugu bertso eskola Iurretan; 20 urte inguruan bai behintzat". Ildo horretan, nabarmendu du bertsozaletasuna egon dela betidanik.

> Eneko Abasolo: "Betidanik izan dugu bertso eskola Iurretan; 20 urte inguruan bai behintzat"

Helduei zuzenduta

Helduei zuzendutako bertso eskola da abiatu gura dutena, Abasolok argitu duenaren arabera. Bertsotan ikasi edota praktikatu gura duten herritarrak gonbidatuta daude egunean, Goiuria kulturgunean, egingo duten batzarrera. Hala ere, interesa eduki eta joaterik ez duenak badu hartu-emanean jartzeko modurik: mezua bidali daiteke *iurretakobertsoeskola@gmail.com* helbidera.

BAQUÉ Café

Hemen, Kafeari Baqué esaten diogu

Ondorengo galderaren erantzuna badakizu...

Cafés Baqué produktuen otzara... zuretzat!

Galdera: Durangaldeko zer antzerki taldek jaso ditu lau sari arte eszenikoen FETEN jaialdian?

Zure datuak eta erantzuna helbide honetara bidali **zozketa@anboto.org edo Bixente Kapanaga 9-lurreta**

Otsaileko irabazlea: Maite Bustinza. Zorionak!

> BERRIZ

Galdera sorta prestatu du 'Kantxa zati bat' egitasmoak

Erabakitzeko eskubidearen inguruko iritziak batu gura dituzte, eta batzar orokorra deitu dute

> AMAIA UGALDE

Hemendik aurrerako pausoak ematen hasi aurretik, berriztarrek erabakitzeko eskubidearen gainean duten iritzia jaso gura dute *Kantxa zati bat* egitasmoko kideek. Horretarako, galdera sorta bat prestatu dute, eta euren webgunetik bete daiteke. Horrez gainera, martxoaren 16rako batzar orokorra deitu dute, hurrengo pausoez berba egiteko.

Idiazabalen sortutako Nazioen Mundua ekimena abiapuntu hartuta, erabakitzeko eskubidearen aldeko herritarrak batu gura ditu *Kantxa zati bat*ek. Abenduaren amaieran hasi zuen bidea egitasmoak, erabakitze eskubidearen aldeko ituna plazaratuta. Idatzi horrek 150 bat berriztarren sinadura jaso du, eta Interneten ere badago atxikimendua emateko aukera. Itunaz gainera, herrian ekintzak antolatzeko asmoagaz jaio da *Kantxa zati bat*.

> Hurrengo pausoez berba egiteko batzarra egingo dute martxoaren 16an, eguerdian, Kultur Etxean.

Batzar orokorra martxoaren 16an izango da, 12:00etan, Kultur Etxean. "Idatzi behar duguna folio zuri bat da, eta ea ahalik eta boligrafo gehien batzen garen".

> Gorka Camara: "Idatzi behar duguna folio zuri bat da, eta ea ahalik eta boligrafo gehien batzen garen"

Gorka Camara *Kantxa zati bat*eko bultzatzaileetako bat da, eta berriztarrek parte hartzearen premia nabarmendu du: "herriak berak erabaki beharko du nondik jo". Ekimenak webgunea dauka, eta sare sozialetan ere sortu dituzte kontuak.

Iazko abenduaren 29an ituna aurkeztu zuten, eta 150 bat berriztarrek sinatu zuten. Diana Anitua

Udalak Margarita Maturanako bost etxebizitza ipini ditu salgai

> A.U.

Margarita Maturana auzoko bost etxebizitza tasatu ipini ditu salgai udalak. Eskaintzaren pleguak argitaratu dituzte honezkero, eta herritarrek martxoaren 14ra arteko epea daukate etxeak erosteko eskari-orriak betetzeko.

Etxeetatik lauk bilogela dauzkate, eta bosgarrenak hiru. Arinago herritarrek utzi eta udalak erositako etxebizitzak dira Margarita Maturanakoak. SUSA sozietate publikoaren bidez ipini ditu salgai udalak. Modu horretan, etxeak promozio publikokoak izaten jarraitzea eta espekulazioak saihestea gura dute.

Eskaintzaren pleguak udalaren webgunean argitaratu dituzte, eta udaletxean bertan ere eskuratu daitezke. Eskatutako agiriak eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira hirigintza bulegoan.

> IZURTZA

Arbizoleako urbanizazio lanen barruan bidegorria egingo dute

Udalak proiektua egin eta enpresetako jabeak egingo dira gastuaren kargu

> JOSEBA DERTEANO

Etorkizunean Durango eta Mañaria bidegorri baten bitartez lotzeko asmoan beste pauso bat emango du udalak. Aurten, Arbizoleako industriagunearen urbanizazioa abiatzeko asmoa du, eta lan horien barruan, bidegorria ere egingo dute inguru horretan eta Mañaria errekaren ertzean. Udalak egingo du proiektua, eta ondoren, industriagune horretako enpresen jabeak egingo dira proiektua gauzatzeak eragingo dituen gastuen kargu. Bidegorri zati hori urte honetan zehar egitea aurreikusita dago. Orain arte, bertako enpresetako jabeekin hartu-emanetan egon da udala dena adosteko, eta dagoeneko arkitektoa proiektua osatzen ari da.

Arbizolea industriagunetik eta erreka ondotik joango da bidegorria.

Tarte hori etorkizuneko bidegorri orokorraren zati bat baino ez da izango. Beste zati bat Uresanditik Santo Tomas ermitaraino eta inguruko parkeraino joango da. Tarte hori da, hain zuzen, egoerarik txarrenean dagoena. Etorkizun batean, zati hori egokitzen ere saiatuko dira.

Azkenik, Elizaldeko tartean (elizaren eta etxeen atzealdetik doan bidea) errazagoa izango da bidegorria egitea, dagoeneko asfaltatuta dagoelako.

> MAÑARIA

Udal webgunea berriztu guran, herritarren laguntzagaz

> MARKEL ONAINDIA

Mañariko Udalak bere webgunea berriztu gura du, ordena eman eta atalak eguneratzeko. Hala, herritarren laguntza eskatu du, "webgune ahalik eta funtzionalena egiteko".

Udal ordezkariek azaldu dute, euren ustez Interneteko atariaren atalak ordena barik daudela. Atal horien artean herriko enpresei begirakoa aipatu dute, adibide legez. Mañarian enpresa bat daukan edozeinek bertan agertu gura badu, udalagaz harremanetan ipini dadila eskatu diote. Enpresak sektoreka banatu eta horien datuak agertzea gura dute udal arduradunek.

Beste gairen bati buruzko ekarpenak ere jasotzeko aukera dagoela azaldu dute, eta guztiak aztertuko dituztela.

> DURANGALDEA ASTEON

Hamabostaldi Kulturala eratzeko batzarra Mallabian

Datorren eguaztenean, martxoaren 13an, Hamabostaldi Kulturala antolatzeko batzarra egingo dute Mallabian. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da kultur etxean. Udalak herriko talde zein herritar guztiei egin die bertan parte hartzeko gonbidapena.

Hirugarren iPada, 158.889 zenbakia daukanarentzat

Rafael Aguirre harategian egin du erosketa *Salerosketak be, euskeraz* egitasmoaren barruan zotz egindako hirugarren iPad2aren irabazleak. 158.889 da zenbaki saritua.

Ordezko zenbakia da honako hau: 159.653. Gureine arropa dendan eman dute txartel hori, arduradunek azaldu dutenez.

Defentsa pertsonal saioak, Plateruenean

Eitten elkarteak defentsa pertsonaleko saioak eratu ditu, eta Plateruena Kafe Antzokian eskainiko ditu. Martxoaren 16an eta 23an izango dira, eta prezioa 15 euroan ipini dute. Parte hartu gura duenak 655 72 02 61 zenbakira deitu ahal du, edota *eitten.team@gmail.com* helbidera idatzi.

Bigarren eskuko azoka egingo dute Berrizen, martxoaren 16an

Berriztu izeneko bigarren eskuko azoka egingo dute Berrizen datorren zapatuan, hilaren 16an. Probalekuan garatuko dela esan dute antolatzaileek, 15:00etatik 20:00etara bitartean. Bigarren eskuko arropa edo aparatuak eroateko deia egin dute; saldu, trukatu edo oparitu egin ahal da, bakoitzak gura duena.

Gainera, musika kontzertua ere egingo dute 19:00etan, eta debalde izango da.

> ELORRIO

Umeak haurreskoletan dituztenentzako laguntzak prest

> M.O.

Udalak dirulaguntza deialdia egin du haurreskoletan umeak dauzkaten familientzat. 2011, 2012 eta 2013 urteetan jaiotakoen senideek eskatu ahal izango dute laguntza hori. Apirilaren 30era arteko epea edukiko dute eskaerak aurkezteko. Orriak eta informazioa udalean zein *www.elorrio.net* webgunean eskuratu ahal dira. Eskaera orriagaz batera, eskatzailearen NANa, familiako kideen 2011ko errenta aitorpena, familia-liburuko inskripzioen kopia eta matrikulazio agiria aurkeztu beharko dituzte. Agiri horien guztien fotokopiak dira eroan beharrekoak.

Familiako errentaren arabera, %7,5etik %30era arteko laguntzak emango dituzte.

Garaizabalen 'Bizkaiko Txakolina. Bidaia', onena bere arloan

Mikel Garaizabalen liburuak Gourmand saria jaso du; Aldundiak bultzatuta argitaratu zen iaz

> MARKEL ONAINDIA

Mikel Garaizabal enologo eta sommelier elorriarrak idatzitako *Bizkaiko Txakolina. Bidaia* liburuak Gourmand saria jaso du. Ondorioz, Europako ardoen inguruko munduko liburu onena dela ebatzi dute. Aldundiak bultzatuta argitaratu zen liburu hau iaz, eta bertako iturriek esan dute, saria enogastronomiako liburuen *Oscar*ra legez hartzen dela.

Garaizabalek esan du, poztasun handiz hartu dutela saria. "Egia esanda, ez genuen espero, beste lau finalisten lanak oso indartsuak zirelako". Gida estilotako liburu honek ardogintzaren inguruko turismoa indartzea du helburu. Liburuaren izenak dioen legez, bidaia bat proposatzen du Garaizabalek. "Enoturismoa ez da bakarrik upategi bat bisitatzea. Inguruan dauden ondare artistikoak, paisajistikoak, arkitektonikoak... bisitatzea ere bada". Mahastizaintza, enologia edo dastaketa aztertzen ditu, eta egin ahal diren txangoak ere aurkezten ditu. "Gure helburua da bisitariei gauzak erraztea eta Bizkaiko txakolinaren inguruan dagoen mundu magikoa azaltzea", adierazi du elorriarrak.

Garaizabal, bere liburua eskuetan daukala.

> GARAI

Interneti buruzko ikastaroak emango dituzte KZgunean

> M.O.

Garaiko KZgunean Internetegaz lotutako hainbat ikastaro eskainiko dituzte datozen hilabeteetan. Hori bai, ikastaroak garatu ahal izateko gutxieneko ikasle kopuru bat beharko da, eta horregatik, interesdunek izena emateko eskatu dute arduradunek. Udaletxean eskuratu ahal izango da ikastaroen gaineko informazioa, eta hamabost eguneko epea dago apuntatzeko.

Aukera zabala dago KZguneko eskaintzan: sare sozialak, irudi eta zigilu digitalak, gestio administratiboak... Azaldu dutenez, ikastaro bakoitzak iraupen zehatza edukiko du. Izena ematen dutenen arabera, zer ikastaro eman adosten ahaleginduko dira antolatzaileak. Goizez edo arratsaldez izan ahal dira.

> MALLABIA

Korrika bultzatzeko egitaraua prestatu dute

Zapatuko bertso afariagaz abiatuko dute Korrikaren inguruan antolatutako ekitaldi sorta

> JONE GUENETXEA

Mallabiko hainbat elkartek eta eragilek Korrikagaz bat eginez, ekitaldiz betetako egitaraua antolatu dute. Zapatuan, Iker Zubeldiak eta Iban Urdangarinek bertso afarian kantatuko dute Beñat Ugartetxearen zuzendaritzapean, Izar Gorri elkartean. Domekarako, berriz, umeentzako zine emanaldia prestatu dute kultur etxean. Korrikaren aurkezpen soziala martxoaren 15ean izango da, 19:00etan, Zurrutokin. Mus txapelketan parte hartzeko aukera izango da martxoaren 17an, 16:30ean, Herriko tabernan.

Martxoaren 20an, Korrikaren egunean, Korrika txikia irtengo da 15:00etan. Ondoren, 19:00etan, giroa alaituko dute trikipoteoan, eta 20:30ean afaltzeko batuko dira Izar Gorri elkartean (norberak bere jana eroan behar du). Martxoaren 22an, monologoen emanaldia izango da 22:30ean, Izar Gorri elkartean.

Berbaz

Gizonenak izan diren egituretan lekua egiten

Martxoak 8, berdintasunaren bidean, emakume biren testigantzak

> AMAIA UGALDE

"Gaztetxotan etorri zitzaidan bokazio erlijiosoa; abadea izan gura nuen, baina ez nintzenez mutila, pentsatu nuen ezin nintzela aldatu; onena legea aldatzea zela, eta ez ni". Maria Jose Aranaren berbak dira (Bilbo, 1943). Teologiaren eta feminismoaren bideak sakondu ditu Bihotz Sakratuko kongregazioko kideak. Durangon hitzaldia eman du, Erdi Aroko beginen lanetik abiatuta, emakumeek kristautasunaren barruan egindako lana ikusarazi guran.

> Emakume oso ezberdin bi, historikoki gizonenak izan diren esparruetan lanean

Alazne Uribarrik (Zaldibar, 1963) hogei urte daroatza, Eusko Label markaren sorreratik, bertoko produktuen kalitate ziurtagiriaren inguruan lanean. Proiektuan zerotik hasita beharrean egon denez, Eusko Label bere umea bezalakoa dela dio. Bertan, hainbat lanpostu eta ardura kargu eduki eta gero, gaur egun Hazi fundazioko zuzendari teknikoa da.

Zaldibarko Aranguren baserrikoa sortzez, bere lanean gustura dabil, eta bokazio komertziala daukala dio. Hasierako urteetan emakume bakarra zen abeltzainekin egindako batzarretan. Gauzak aldatzen dabiltzala igarri du azken urteotan.

Emakume oso ezberdin bi dira, mundu desberdinetan, baina biak, historikoki gizonenak izan diren esparruetan beharrean.

"Elizarako ere, gizarterako eskatzen den berdintasuna eskatu behar da"

Maria Jose Arana teologo feministak hitzaldia eman du Durangon beginei buruz. Emakume erlijiosoak ziren beginak, eta parrokian lan egiteaz gainera, umeekin, gaixoekin eta txiroekin egiten zuten lan. Izaera independientea zuten, eta horrek hainbat zigor ekarri zien; Durangon bertan, heresia salaketak izan zituzten.

Kristautasunaren historian, emakumeen lana ezkutukoa izan da.

Erdi Aroan emakumeek halako estatus bat izan zuten Elizan, baina Trentoko kontzilioagaz, guztiak klausuran sartzen ahalegindu ziren. Vatikano II.agaz eta Juan XXIII.agaz ematen zuen gauza batzuk lortu zirela, baina gero geldialdi handi bat egon da, batez ere, Juan Pablo II.agaz.

Gaur egun, zelakoa da emakumeen egoera Elizan?

Lan asko dago egiteko. Ideologia mailan esaten da, gizartean emakume eta gizonen berdintasuna oso garrantzitsua dela; bada, berdintasun hori Eliza barruan ere eskatu behar da. Denok izan behar ditugu bokazioa bizitzeko aukera berberak. Emakumeok elizan peoiak gara, eta erabakitzeko lekuetan egon behar dugu.

> *Aita Santu berriak bizi garen munduari entzun behar lioke; bereziki emakumeak entzun ditzala eskatuko nioke"*

Aita Santu berriak zer erronka eduki beharko luke?

Niretzako oso garrantzitsua da kontsekuente izan eta esaten dena elizaren barruan bizitzea. Itxaropen mezu bat eman beharko lioke munduari, ebanjelioaren balioetan oinarrituta. Bizi garen munduari asko entzun beharko lioke, eta bereziki eskatuko nioke emakumeak entzun ditzala.

Gertu ikusten duzu emakumeak abadetzan egon ahal izatea?

Gauzak astiroegi doazela uste dut. Apurka-apurka bagabiltza lanean, eta gizonak ere konprometitzen dira; Bizkaiko Abadeen Foroak idatzi bat egin du emakumeen abadetza eskatzen. Gizonak ere inplikatu behar direla uste dut; berdintasunean, elizan eta gizarte osoan. Aldatzearen garrantziaz jabetu behar dira.

"Hasieran, batzar askotan emakume bakarra nintzen; hori aldatzen dabil"

Baserririk baserri Eusko Labelen proiektua azaltzen jarduten hasi, eta gaur egun, Hazi fundazioko zuzendari teknikoa da Alazne Uribarri. Bere lan arloan parekidetasuna handitu dela igarri du.

Eusko Labelen hasieratik zaude bertan lanean. Zelan gogoratzen dituzu hastapenak?

Hasieran, erronka handia izan zen. Hiru lagun hasi ginen, eta urte gaitzak izan ziren, inork ez zuelako Eusko Labelaz eta labelari buruz ezer entzun. Baserririk baserri eta harategirik harategi joan ginen azaltzen. Baserritarrak egoera berrian zeuden. Europako mugak zabaltzerakoan, leku askotatik etorritako produktuak heldu ziren. Denetik egin genuen, marka sortzetik, araudiak egin eta kaxak eroateraino. Hogei urte egin ditut, eta nire bizitzako proiektu profesionala da hau; Eusko Label nire umea bezalakoa da.

Trabaren bat igarri duzu emakumea izateagatik?

Ez... Hasieran, batez ere, batzar askotan emakume bakarra izaten nintzen. Abeltzainen elkarteagaz, arrantzaleekin... Nahiz eta lehen sektorean emakume askok lan egin, batzarretara gizonak etorri izan dira, eta apurka-apurka aldatzen dabil hori.

> *Lankideen artean, bakoitzak kargua bere gaitasunen arabera betetzen du, izan gizon edo emakume"*

Gauza asko erabakitzen diren batzarretan aldaketa garrantzitsua egon da, eta emakumeok askotan ikuspegi ezberdina ematen dugu. Ardura postuetan ere, emakumeek geroago eta paper aktiboagoa eta protagonismoa daukate. Bizkaiko diputatua emakumea da, Gipuzkoako sagardogileen elkarteko arduraduna emakumea da...

Lan esparruan, zelan ikusten duzu genero berdintasuna?

Gurean esango nuke emakumeak gizonak baino gehiago garela. Badaude itxuraz "ofizio maskulinoak" eman ahal dutenak: albaitariak, injineru agronomoak... baina postu horietan ere emakume asko dauzkagu. Berdintasun politika zehatzik ez daukagu ezarrita, baina bai; bakoitzak kargua bere gaitasunen arabera betetzen du, izan gizon edo emakume.

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21

Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13

2 URTE BERMEA

1000 b/min 6 kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WAE20260EE
299 € BOSCH

2 URTE BERMEA

1200 b/min 6 kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA 3TS865E
299 € Balay

2 URTE BERMEA

1200 b/min 7 kg

A++ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WM14E470EE
420 € SIEMENS

2 URTE BERMEA

1200 b/min 8 kg

A+++ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-8212
430 € FAGOR

2 URTE BERMEA

1400 b/min 8 kg

A+++ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WM14Q468EE
485 € SIEMENS

2 URTE BERMEA

ONTZI-GARBIGAILUA F55020W0P
375 € AEG

2 URTE BERMEA

ONTZI-GARBIGAILUA F55020W0P
425 € AEG

2 URTE BERMEA

INDUKZIOA URBAN-I33S
365 € edesa

2 URTE BERMEA

1850 X 600 X 600

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA S63200CMW1
595 € AEG

2 URTE BERMEA

2000 X 600 X 600

NO FROST

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA KG39NAI25
825 € SIEMENS

PREZIO BEREZIAK

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETARAKO

FAGOR edesa

BOSCH Balay

AEG

SIEMENS

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistentzako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA JASOKO DA

MERKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA

GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU

+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

Amankomunazgoak lana sustatzeko hamazortzi proiektu abiaraziko ditu

Durangaldeko udalekin eta hainbat eragilerekin elkarlanean, sei lanpostu, sei enpresa eta hamasei ikastaro bultzatuko ditu

Lana sustatzeko proiektuen diseinuan eta finantziazioan parte hartu duten eragileetako ordezkariak, eguaztenean Behargintzan egindako prentsaurrekoan.

> MARKEL ONAINDIA

Durangaldeko Amankomunazgoa, udalak eta hainbat eragile langabeziaren kontra egiteko batu dira. Lanbidek enplegua sustatzeko dirulaguntza deialdia egin zuen eta, horren harira, diagnostiko bat egiteko elkartu ziren *Durango-Durangaldea Prestatuz* izeneko foroan. Azterketa hori amaitzean, eskaerak tramitatu zituzten Durango eta Elorrioko udalen izenean. Bada, Lanbidek ia 190.000 euroko laguntza eman du, eta langabetuei zuzendutako hamazortzi proiektutan inbertituko dute. Ikastaroak, langabetuen kontratazioak eta enpresen sorrera sustatuko dituzte. Guztira, 295.000 euroko aurrekontua daukate.

Diagnostikoaren arabera, Durangaldean badaude merkatu berri posibleak: turismoa, lan berdea eta nekazaritzaren sektorea dira horiek. Horregatik, diseinatutako proiektu gehienak eremu horietara begira orientatutakoak izango dira, azaldu dutenez.

Hamasei ikastaro

Hamazortzi proiektuetatik hamasei formazio ikastaroak izango dira. Nekazaritza ekologikoa, mugikortasun iraunkorra, eraginkortasun energetikoa, mugikorretarako aplikazioen garapena, sukaldaritza... Askotariko gaiak landuko dituzte ikastaro horietan. Apirilaren 8an hasiko dira batzuk, eta hilerik hile ikastaro berriak garatzen hasiko dira; azkenekoak irailean eskainiko dituzte. Arduradunen arabera, ikastaro horiek Lanbidela Landa Garapena eta Dendak Bai elkarteen bidez. Kontratazio horiek Lanbidetik bideratuko dira. Bestetik, sei enpresa sortzeko prozesua hasiko dute Sartu-Zabaltzen eta Behargintzaren eskutik. Horretarako, laguntza eta formazioa emango diete lan barik dauden pertsona horiei.

> Ikastaro bakoitzeko, hamabi eta hamabost lagun bitarteko kopuruak edukitzea aurreikusi dute

> Langabezia-tasa bikoiztu egin da. 2006an %5,7koa zen langabetuen kopurua, eta 2012an %12,5ekoa

ren ohiko eskaintzaren gehigarriak dira. Orotara, 1.500 ordu egingo dituzte ikastaroak ematen. Ikastaro bakoitzeko, hamabi eta hamabost lagun bitarteko kopuruak edukitzea aurreikusten dute.

Sei postu eta sei enpresa

Gainerako proiektu biak lanpostuen eta enpresen sorreragaz lotutakoak dira. Alde batetik, sei lanposturen kontratazioa bultzatuko dute Urkio-

Egoera aldatu guran

Azkeneko sei urteetan, Durangaldeko langabezia-tasa bikoiztu egin da. 2006an %5,7koa zen langabetuen kopurua, eta 2012an %12,5ekoa. Bizkaian tasa hori handiagoa izan arren –%16,4–, Durangaldean enpleguaren galera erritmo bizian jazo dela esan dute. Egoera hori aldatu guran dabiltza aste honetan proiektuen aurkezpena egin duten eragileak. Horrela azaldu du Oskar Zarrabeitiak, Amankomunazgoko presidenteak: "Gaur egun eskualdean bizi dugun lan egoerak, plangintza bateratua egitera garamatza".

Informazioa sustatzaileen webguneetan dago eskuragai. Parte hartzeko, fitxa bete eta Lanbiden aurkeztu behar da.

PROIEKTUEN SUSTATZAILEAK

- Amankomunazgoko Behargintza
- Durangoko Udala
- Elorrioko Udala
- Abadiñoko Udala
- Atxondoko Udala
- Berrizko Udala
- Garaiko Udala
- Iurretako Udala
- Izurtzako Udala
- Mañariko Udala
- Zaldibarko Udala
- Lanbide
- EHNE sindikatua
- Dendak Bai
- Urkiola Landa Garapena
- Sartu-Zabaltzen
- Iurreta Institutua
- Maristak ikastetxea

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

IKASTAROA	LEKUA	IRAUPENA	ORDUTEGIA	DATAK	INSKRIPZIO DATA
Sukaldaritzako oinarrizko prestakuntza	DURANGALDEKO BEHARGINTZA **www.mdurango.org**	216 ordu	15:00-20:00	apirilak 8 - ekainak 7	Martxoaren 8ra arte
Etxez etxeko arreta sanitario eta higienerako prestakuntza	DURANGALDEKO BEHARGINTZA **www.mdurango.org**	206 ordu	9:30-14:30	apirilak 8 ekainak 6	Martxoaren 15era arte
Agroekologian ekintzailea izateko prestakuntza integrala	EHNE Sindikatua **www.ehnebizkaia.org**	100 ordu	10:00-14:00	apirilak 16 ekainak 6	Martxoaren 21era arte
"Giza Berrikuntza" proiektua: enplegurako jarrerak, tresnak eta estrategiak eskuratzeko prestakuntza (I)	DURANGALDEKO BEHARGINTZA **www.mdurango.org**	112 ordu	09:30-13:30	apirilak 22 maiatzak 30	Apirilaren 8ra arte
Gailu mugikorretarako aplikazioak garatzeko prestakuntza espezializatua	MARISTAK IKASTETXEA **www.maristak.com**	186 ordu	15:00-19:00	apirilak 24 ekainak 28	Martxoaren 15era arte
Barran eta mahaian jakiak eta edariak zerbitzatzeko eta prestatzeko formakuntza	DURANGALDEKO BEHARGINTZA **www.mdurango.org**	156 ordu	15:00-20:00	maiatzak 9 ekainak 24	Apirilak 22ra arte
Nekazaritza ekologikoan espezializatutako ikastaroak (I)	EHNE Sindikatua **www.ehnebizkaia.org**	24 ordu	16:00-20:00	maiatzak 14 maiatzak 30	Maiatzaren 3ra arte
Mugikortasun berdean espezializatutako prestakuntza: ibilgailu elektrikoetan aplikatutako teknologia	IURRETAKO INSTITUTUA **www.iurreta-institutua.net**	71 ordu	09:00-14:00	maiatzak 27 ekainak 17	Maiatzaren 10era arte
Mugikortasunerako laguntza teknikoan espezializatutako prestakuntza: mugitzeko zailtasunak dituzten pertsona eta kolektiboentzako gailuen diseinua eta fabrikazioa	IURRETAKO INSTITUTUA **www.iurreta-institutua.net**	101 ordu	8:15-14:45	maiatzak 27 ekainak 24	Maiatzaren 10era arte
Nekazaritza ekologikoan espezializatutako ikastaroak (II)	EHNE Sindikatua **www.ehnebizkaia.org**	24 ordu	16:00-20:00	ekainak 3 ekainak 19	Maiatzaren 24ra arte
Efizientzia energetikoan espezializatutako prestakuntza: familia bakarreko etxebizitzetako edo landa-inguruetako autohornikuntza elektrikoan aplikatutako teknologiak	IURRETAKO INSTITUTUA **www.iurreta-institutua.net**	101 ordu	08:30-14:00	ekainak 3 uztailak 2	Maiatzaren 17ra arte
Nekazaritzako produktuak eraldatzeko ikastaro espezializatuak (I)	EHNE Sindikatua **www.ehnebizkaia.org**	24 ordu	10:00-14:00	ekainak 19 uztailak 4	Ekainaren 7ra arte
Nekazaritzako produktuak eraldatzeko ikastaro espezializatuak (II)	EHNE Sindikatua **www.ehnebizkaia.org**	24 ordu	16:00-20:00	ekainak 24 uztailak 9	Ekainaren 7ra arte
"Giza Berrikuntza" proiektua: enplegurako jarrerak, tresnak eta estrategiak eskuratzeko prestakuntza (II)	DURANGALDEKO BEHARGINTZA **www.mdurango.org**	112 ordu	09:30-13:30	uztailak 3 irailak 20	Ekainaren 10era arte
Nekazaritza ekologikoan espezializatutako ikastaroak (III)	EHNE Sindikatua **www.ehnebizkaia.org**	24 ordu	10:00-14:00	irailak 9 irailak 25	Uztailaren 24ra arte
Nekazaritzako produktuak eraldatzeko ikastaro espezializatuak (III)	EHNE Sindikatua **www.ehnebizkaia.org**	24 ordu	16:00-20:00	irailak 10 irailak 26	Uztailaren 24ra arte

Iritzia

> GUTUNAK gutuna@anboto.org eguazteneko 17:00ak arteko epea

Minusbaliotasun intelektuala dutenentzako zentroari buruz

Bilduk argi utzi nahi du pasa den asteko ohiko bilkuran minusbaliotasun intelektuala duten pertsonentzako zentroa irekitzeari kontra egin izanaren arrazoiak. Bildu ez dago pertsona horientzat zentro bat irekitzearen aurka, badakigu beharrezkoa dela, baina ez gaude batere ados PNVk zentro hori eraikitzeko egin duen planteamenduarekin.

Udal Gobernua ezkutatzen ari da 20.000 biztanle baino gehiagoko herrietan, halabeharrez udalak martxan jarri behar duen zerbitzua dela. Ez dugu ulertzen zergatik Udal Gobernuak hitzarmen baten bitartez erantzukizun guztiak saihesten dituen, kudeaketa guztia, inolako baldintza barik, hirugarren baten eskuetan utzita. Pertsona horiek gizartean, bizitza sozialean, integratu behar dira, eta horren erantzukizuna udalak izan beharko luke. Arazoaren irtenbidea ez dator Aldundiari, inolako baldintzarik gabe, 50 urtetarako lokal bat emanda.

Minusbaliotasun intelektuala duten pertsona horien integrazioa da lortu behar duguna, eta horretarako, ezinbestekoa da bertan lan egingo duten pertsonak hemengo profil sozial eta linguistikoa izatea. Egoera sozioekonomiko honetan, eskualdeko pertsonak kontratatzeko aukerak galduko ditugu. Lanpostuak sortzeko aukera egokia dela uste dugu. Kudeaketa guztia hirugarren baten eskuetan uztean, udalak zentro hau bideratzeko izan ditzakeen eskumen guztiak galduko ditu. Udalak asko dauka esateko Aldundiaren edo besteren baten esku geratuko den zerbitzu honetan. Beste behin ere, PNVri eskatzen diogu, azken aldia izan dadila era horretan egindako proiektu sozial bat mahai gainean jartzen digutena, dena erabakita dagoenean.

BILDU Durango

44an jaiotakoen kinto bazkaria

Durangon, 44an jaiotakoen kinto bazkaria. Ohitura dogun moduan, aurten be martxoaren lehenengo zapatuan ospatu dogu urteko bazkaria. 33 lagun alkartu ginan: 16 "andrazko" eta gainontzekoak "mutikotxoak". Jesuitetara bisita, hau da, hil eta bizien aldeko meza, txikiteoa alde zaharretik hasi eta Kobikan egin gendun bazkaria. Beste behin, Kortabitarte anaiek mokadutxu batzuekin jaso gintuzten. Gorringo kopa, solomilloa eta abarrak, danak bikain txutxumutxuek diotenagaitik. Jasotako harrera be, bikaina izan zan. Beraz, puntuatzeko gaitza. Hori bai, berba batean esanda: zoragarri. Iparra galduta dogunok, betiko moduan, auzotik sozializazio apur bat egin gendun, eta amaitzeko, Jose Antonioren txokoan geldialditxo bat be egin behar izan gendun, gure etxeetara heldu ahal izateko. Iaz urteera berezi bat egitekotan aritu ginan. Ez dogu urteerarik egin, baina egunak berezia urten eban. Lagunok, jarraitu aurrera, eta ia betiko lez alkartzen garen, datorren urterako gutxiago geratzen jaku eta.

Luis Maria del Moral

Uda bat, hamaika irri, euskara giltzarri

Zabaldu dira aurten ere euskal udalekuetara joateko izen-emateak! Eta horrekin batera, zabaldu dira berriro ere hainbat ume, gazte eta hezitzailengan hainbeste oroitzapen, gogo eta ilusio. Atzera begiratu eta aurreko udako oroitzapenak datoz burura, duela urte batzutakoak eta umetan bizitako pasarte eta abenturak.

Bat-batean udako berotasuna sentitu dut, krema usaina, jangelako zalaparta... Begirale, ume, sukaldari.... sentsazio ugariz betetzen da gorputza: lehenengo eguneko urduritasunak, Euskal Herriko txoko askotako lagunak, jolasak, kantuak, azken eguneko negarrak, buzoira helduko diren lagun berrien eskutitzak...

Euskal Udalekuetara joan izan garen ume eta hezitzaileok badaukagu halako lotura bat Abaigar, Bernedo eta Goñiko etxeekin. Eta zer daukate, bada, hain berezi egiten dituztenak? Zer daukate hainbeste urte pasa eta gero oraindik ere udarako planik onena iruditzeko?

Egun batzuez bada ere, euskaratik eta euskaraz bizitzeko udalekuak dira, jolasteko, ikasteko, amesteko, eta batez ere, ondo pasatzeko lekuak. Errespetua eta aniztasuna oinarri hartuta, taldean bizitzeko esperientzia bizi dugu bertan, irudimenari ateak ireki eta lagunartean gozatuz. Zer diren eukal udalekuak? Bada, batik bat, magiaz betetako hiru etxe, ilusioz eta urte osoko bolondres lanarekin aurrera ateratzen direnak. "Oraindik urruti dago uda" diot neure barrurako, baina zabaldu dira jada izen-emateak! Eta hasi dira bilerak, egunen prestaketak, etxeko konponketak, umeen fitxak... Astiro-astiro badator udaldia! Eta sekulakoa izango da aurten ere!

Abaigar, Bernedo eta Goñin ikusiko dugu elkar. Irribarrez.

Euskal Udalekuetako hezitzaileak

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ

Emakume adoretsuak

Barikuan, martiaren 8an, urtero legez, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dogu mundu zabalean eta gurean. Egun aproposa da andren erreibindikazioak aldarrikatzeko eta aurrera egiteko begirada kritikoz. Bide luzea egin dogu emakumeok eskubide-berdintasunaren alorrean, baina, zalantza barik, etorkizunari begira be, hainbat eta hainbat gerra borrokatu behar izango doguz benetako berdintasuna lortu arte. Gazteen artean matxismoaren aurrerakada egon dala nabaria da, eta ezinbestekoa adin-eremu horretan ahalegin berezia egitea, etorkizuna berdintasunean eraiki nahi badogu. Atzerapausorik ez. Datorrenari aurpegia erakutsi behar deutsogu, historian zehar ikasitakoa aprobetxatuz eta etorkizunari tinko helduz.

Edozelan be, lerro hauek aprobetxatu nahi dodaz iraganari be begiradatxo bat emoteko, eta gure aurreko emakumeei omenaldi xume bat egiteko. Azaleko aldarrikapenen garai honetan, gogora ekarri nahi dodaz iraganeko hainbat eta hainbat emakume indartsu, ausart, borrokalari.

Gure herriko andra apartak, benetako heroiak. Besteak beste, Durangoko bonbardaketa bizi izan ebenak, hainbeste eta hainbeste sufrimenduren gainetik euren familiak aurrera atera ebenak, etxe barruan eta kanpoan lan eginez eta, askotan, herria bera be, sarraskiaren ostean, eraikiz. Edo diktadura garaian euren biziak arriskuan jarrita, euskararen eta euskal kulturaren biziraupena ziurtatu eben emakume errepresaliatuak. Edota klandestinitateko mugimenduetan parte hartu eben andrak. Bai eta demokraziaren lehenengo garaietako kargu publikoak bete ebezan andrak be, alkateak adibidez, gure herrian adibidez. Eurenak bai garai ilunak. Gureak ez dira samurrak, baina, besterik ez bada, gaurkoan hedatua dago gizartean berdintasunerako nahia. Orain, ezinbestekoak dira aurrerapausoak, baina emakumeok ezin dogu alde batera laga gure aurrekoen ondarea, eta, jaraunspen horrek ematen deuskun erantzukizunez, androk benetako gure arazoak konpontzeko saiakera egin behar dogu, aldarrikapen hutsalak alde batera utzita. Gure amei eta amamei zor deutsegu, bai eta gure alabei be.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - **astekaria@anboto.org**

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Datuok barik ez da gutunik argitaratuko.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko martxoaren 8a
11. urtea - 492. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Aitor Lopez.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Anbotok es du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kultura

> BERBALDIAK

“Artearen erabilpen maltzurraren inguruan jardungo dugu zikloan”

X. Artearen Ezaupidea berbaldi zikloa hasi zuten atzo, arte totalitarioari buruz

> ITSASO ESTEBAN

Zorionak, honelako ekimen bat hamar urtez mantentzearren!

Pozteko modukoa da, bai, ez baita oso normala hamar urtean hau bezalako ziklo bat mantentzea. Zorionak eta eskerrak helarazi nahi dizkiet, hemendik, parte-hartzaile guztiei.

Deigarria da aurtengo zikloaren gaia: estetika eta arte totalitarioa. Zelan aukeratu duzue?

Azken boladan, asko jorratzen da gai hori: oroimenari lotuta ere, leku askotan lantzen dabiltza. Durangon ere honen inguruan zerbait esatea interesgarria dela pentsatu dugu.

Zertaz dihardugu ‘arte totalitarioa’ esaten dugunean?

Arte totalitarioa, erregimen totalitarioen pean garatzen dena da: ez da arte inozoa, jendearen bizitzan eragin zuzena daukana baizik. Oso lotuta dago ideologiarekin, eta pentsatu dugu, tokatzen zitzaigula gogoetatxo kritiko bat egitea honen inguruan, eta iraganari begirada kritiko hori botatzea.

Erregimen totalitarioak sostengatu zituzten artelanez jardungo duzue soilik?

Bai, erregimen horiek bultzatutako artean zentratuko gara. Landuko ditugun erregimen totalitario hauetan disidentziarako leku gutxi zegoen. Gure interesa, hain justu, erregimen horiek arteaz egin zuten erabilpen maltzurra aztertzea da.

Zer kasutaz jardungo duzue?

Italia faxistako, Alemania nazionalsozialistako eta Sobiet Batasuneko adibideak landuko ditugu. Badaude erregimen horiek bereizten dituzten ezaugarriak, baina baita konpartitzen dituzten ezaugarri batzuk ere: kontrolari dagozkionak, adibidez.

Zuk eskainiko duzu bigarren hitzaldia, martxoaren 14an.

Bai, hirugarren Reicheko estetikari buruz jardungo dut. Oso adibide gordina da. Ez ditut estetikoki garrantzia izan zuten ideiak bakarrik landuko, atzean zegoen ideologia suntsitzailea artean zelan agertzen den ere azalduko dut: talde kontzientzia garatzeko zelan erabili zuten. Artearen erabilpen maltzurraren inguruan jardungo dugu.

> “*Italia faxista, Alemania nazionalsozialista, eta Sobiet Batasuna hartuko ditugu hizpide*”

Zer lotura daukazu gai horiekin?

Gaiaren inguruko kongresu batera gonbidatu ninduten, eta materiala prestatu nuen bertarako. Ideia horiek garatu ditut gero. Azkenaldian literaturari lotutako arteari buruzko lan oso interesgarria egiten ari dira esparru honetan: kontzentrazio esparruetako literaturari buruz, adibidez. Esperientzia oso gordinen kontakizunak dauzkagu: nolakoak garen gizakiok eta noraino ailegatzeko gai garen kontatzea, bizirautea bezain garrantzitsua dela erakusten dutenak.

Oroimenaren garrantzia.

Ideologikoki desberdinak izan arren, artelan baten aurrean eta isiltasunean pertsonek elkargunea topatu dezaketela uste dut. Pentsatzen dut Euskal Herriko gatazkari lotuta ere, erabilgarri izan genezakeela hori.

Hasi zara datozen urteetako zikloetako gaiak pentsatzen?

Hori baino lehen, autokritika bat egin gura dut, hiru berbaldiak gaztelaniaz direlako aurten. Ez da berriro gertatuko.

Datozen eguen bietan, nazismoari eta errealismo sobietarrari buruz

Martxoaren 14an eta 21ean dira zikloaren barruko hurrengo hitzaldiak



Nazismoak zelan uztartu zituen ideiak eta forma azalduko du, Artearen Ezaupidea zikloaren barruko bigarren berbaldian, Aitor Aurrekoetxea filosofia irakasleak: “Semiotikoki, oso irudi erakargarriak zelan garatu zituzten landuko dugu”, azaldu du. “Askotan esaten da, nazismoa paganoa izan zela”, jarraitu du Aurrekoetxeak, “baina nik uste dut nazismoa kristianismoarekin alderatu daitekeela: Hitlerren figura izango litzateke jaungoikoaren parekoa, eta paralelismo hori azalduko dut nire hitzaldian”, aurreratu du Aurrekoetxeak.

Martxoaren 21ean da Artearen Ezaupidea zikloko hirugarren eta azken hitzordua. Aurrekoak bezala, 19:00etan hasita, Durangoko Arte eta Historia Museoan. Sobiet Batasuneko errealismoaz jardungo du, egun horretan, Mikel Iriondo EHUko arteen estetika eta teoriaren irakasleak. 1917ko Iraultza Boltxebikearekin hasita, 1989an Berlingo harresia bota arte iraun zuen, eta “herri eta pertsona askorengan eragin zuen” erregimenari buruz ariko dira.

Atzo, Italia faxistako artearen inguruan jardun zuten, Durangoko Artea eta Historia museoan. Klasizismoaren alde egiten zuen erregimenaren abangoardisten arteko tentsioei buruz jardun zuten, besteak beste, Artearen Ezaupidea zikloan.

Ahalik eta erarik dibulgatiboenean, baina Aitor Aurrekoetxea antolatzailearen berbetan, “sakontasunetik” jarduten dute artearen bilgune honetan.

> ANTZERKIA

Lau sari jaso ditu Gorakadak arte eszenikoen FETEN jaialdian

Zuzendaririk eta interpretaziorik onenaren saria jaso dituzte, besteak beste

> ITSASO ESTEBAN

Gijongo (Asturias) FETEN sariketatik lau sarigaz bueltatu da Abadiñoko Gorakada antzerki konpainia. Gorakadak estreinatu berri duen *Munduari itzulia* antzezlana goraipatu du antzerki jaialdiko epaimahaiak.

Batetik, Willy Fogen bidaiaren *Munduari itzulia* laneko Gorakadaren kontakizunagatik, moldaketarik onenaren saria jaso du Julio Salvatierrak. Beste hiru sari gehiago ere ekarri ditu Durangaldeko antzerki taldeak Asturiasko jaialditik: zuzendari onenaren saria eman diete Alex Diaz abadiñarrari eta Ze Garcia lankideari, interpretaziorik onenaren saria jaso dute Aritza Rodriguezek eta Jose Cruz Gurrutxagak, eta argiztapen eta eszenografia onenarena Jose Ibarrolak, Javi Tiradok eta Javi Ullak.

> Gorakadak estreinatu berri duen 'Munduari itzulia' lana goraipatu du Asturiasko jaialdiko epaimahaiak

Haur eta gazteentzako arte eszenikoen jaialdia da FETEN, eta XXII. edizioa ospatu dute aurten: munduko 68 antzerki konpainiaren lana izan da bertan ikusgai.

Taldea sortu zela mende laurdena ospatzeko ekitaldiak egiten dihardu, aurten, Gorakadak. Ondorioz, Durangoko San Agustin kulturguneko sarreran taldearen historiari buruzko erakusketa egon da ikusgai otsailean: ikuskizunetarako sortutako txotxongiloak, kartelak, argazkiak, eta abar bildu dituzte Durangoko erakusketa horretan.

Udaberrian, *Printzea eta ahatea* lanaren galegozko bertsioa estreinatuko du Gorakadak.

> PINTURA

Durango eta Gernikako bonbardaketak margoz

Martxoaren 31ra arte, Durangoko Museoan daude Carmelo Ortiz de Elgearen artelanak bisitagai

Durango-Gernika izenburuko erakusketa zabalduko dute Durangoko Arte eta Historia Museoan, gaur. Martxoaren 31ra arte, Durangoko Museoan izango da, bisitariei zabalik.

Carmelo Ortiz de Elgea (Gasteiz, 1944) artistaren lanak bildu dituzte erakusketan: Durango eta Gernikako bonbardaketei buruzko koadroak.

Guztira, hamalau margolan dira Durangora ekarri dituenak: Gernikako bonbardaketari erreferentzia egiten diotenak sei, eta Durangok jasandako bonbardaketa ardatz hartzen dutenak beste zortzi. Durango eta Gernika euren historiaren unerik mingarrienean dakarzkigu margolari gasteiztarrak.

Madrilen ikasi zuen Ortiz de Elgeak, eta 60ko hamarkadan abangoardiako artista arabarrak batu zituen Orain taldearen sorreran parte hartu zuen.

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA
Ikaslea

Eskeletorik ez horizontean

Hire begiak ikusten ditudanean, aurrez aurre ikusten dinat behinola amestutako guztia. Hire begi ninien dirdira Kinsasa egun oskarbi batean kiskali zezakenan metraila zaparradaren pare iruditzen zaidan. Sekula ezer eskatu ez didanalako saiatu naun dena ematen. Uztaileko belaze basatien arima izatea eskertu izan dinat beti, lurrari atxikirik, baina edonon nahi dunan norabidean abiatzeko ikararik gabe. Olagizonek zazpiehun eta hogeita bederatzigarren talka erditzean azkena bezain nahitaezko egin dun lehena.

Ez naun lortu ezin daitekeen ezeri buruz ari, egunez egun arnastu nahi nikenan hari buruz baizik. Albumek sobera leku diten istant zaharkitu bakanduak atxilo hartzeko, horregatik ez dinat inoiz hik dunan libre izan nahi hori leporatuko.

Editorialetan agertzeko badun meritu ugari, inori baimenik eskatu gabe ere. Hala ere, gaur gozotasunez maindire zuri lisatu berrian bildu nahi hindudan, nik ere baimenik eskatu beharrik gabe, neguaren arrastorik izan ez dezanan hire beldur amaigabeetan.

Lo hagoela musu bat ere eman izan dinat usu (bi, hiru,-lau… eman nahi arren), baina askatasuna eta gatibutasuna loak hartzeko behar dinagun denboran kalibraturik daudenez, hire begiak bihar, etzi edo etzidamu ere bertan egongo direla pentsatuaz gerturatzen naun hire artilezko asfaltora; hire begi ninien dirdira Kinsasa egun oskarbi batean kiskali zezakenan metraila zaparradaren pare iruditzen zaidan arren, nahikoa izango dunalako A-8aren alde honetako hiru-lau kautxu eraunsten baditin.

EDERTASUN GIDA

Ana Camarero

Estetika zentroa dauka Durangon

Presoterapia promozioak eskaintzen zabiltzate martxoan, ezta?

Bai. Hamar saiotan %60 deskontua egiten dugu. Dagoeneko martxan dago promozioa, eta oso harrera ona eduki du. Zelulitisa, hanka nekatuak, zirkulazio txarra... hainbat arazoren aurrean jaso ahal den masaje zerbitzua da.

Zer hobekuntza ekarri ahal du?

Zirkulazioa hobetzen du, baita sistema linfatikoa eta muskularra ere. Azala suspertu eta elastikotasuna hobetzen du. Haurdun daudenen kasuan, barizeak agertzea ekidin eta hanketako nekea ere arintzen da.

Zelako sistema da?

Praka integral bat da, hogei kamera dauzkana. Martxan jartzean, badirudi lau esku aldi berean dauzkazula masajea ematen. Guk kontrol osoa eroaten dugu hasieratik amaierara, pisuak eta neurriak zainduta.

3 AHOLKU

1. Presoterapiako Sumtec teknologiako prakek hogei kamera dauzkate
2. Ipintzean, badirudi lau esku aldi berean masajea ematen dabiltzala
3. Masaje honek zirkulazioa hobetzen du, baita sistema linfatikoa eta muskularra ere

Sumtec teknologiako prakak

ILEAPANDEGIAK

ESTETIKA ZENTROAK

Profesional onenak zure zerbitzura!

Aisialdia

> GAZTE GARA GAZTE!

Monoplaza baterako esekidura mekanizatzen ari dira Maristak ikastetxeko 30 bat ikasle

Iñaki Narbaiza proiektuko koordinatzailea (ezkerrean) eta hainbat ikasle, Maristak ikastetxean.

> JOSEBA DERTEANO

Motibazioa eta ilusioa dira lanean gustura aritzeko erremintarik onenak. Osagai horiek ikasleen eskura ipinita, Maristak ikastetxeak erabateko inplikazioa lortu du proiektu berri baterako. Maristetako erdi eta goi mailako 30 bat ikasle mundu mailako lehiaketa batean aurkeztuko den monoplaza baterako esekidura mekanizatzen ari dira. Iñaki Narbaiza irakasle eta proiektuko koordinatzaileak ikasleen inplikazioa nabarmendu du: "Sarritan, pieza bat egin eta armairuko apal batean geratzen da. Zirkuitu batean probatuko duten monoplaza baterako esekidura egitea motibazio handia da ikasleentzat".

Formula Student du izena mundu mailako lehiaketak, eta urtero abiatzen du Erresuma Batuko ingeniari mekanikoen institutuak (The Institution of Mechanical Engineers). Lehiaketaren xehetasunak webgune batean dituzte: *www.formulastudent.com*.

Ingeniaritza eskolatik

Bilboko San Mames ingeniaritza eskolako 60 bat ikasle dabiltza monoplaza sortu guran. Azpitaldetan banatuta dute lana, eta horietako batek esekiduraren ardura du. Puzzleko une horretan sartzen da jokoan Maristak ikastetxea. Monoplazako esekiduren diseinua mekanizatzea proposatu zieten, hau da, planoetan dagoena benetako bihurtzea. Maristak ikastetxeak proposamena onartu eta 30 bat ikasle buru-belarri dabiltza horretan.

Guztira, ia 400 piezek osatzen dute esekidura: 200 bat aluminiozkoak dira, eta 140 altzairu herdolgaitzezkoak. Pieza horiek ikastetxean bertan egiten dituzte. Baina horiez gainera, badaude beste 40 bat pieza fundiziora eroango dituztenak.

Beraz, piezarik gehienak Maristak ikastetxean bertan egiten dituzte erdi mailako ikasleek, txirbil-harroketako mekanizazio prozesua erabilita. Baina beste pieza batzuk konplikatuagoak dira, eta Urduñako fundizio batean egingo dituzte. Horretarako, lehenengo eta behin pieza horien moldeak diseinatu behar dituzte diseinuko ikasleek, ondoren fundiziora bidaltzeko.

Ikasleen motibazioa

Formula Student lehiaketa uztailaren 3tik 7ra egingo dute Ingalaterrako Silverstone zirkuituan. Normala den moduan, hitzordu garrantzitsu horren aurretik, monoplaza muntatzen dutenean, San Mames ingeniaritza eskolakoek probak egingo dituzte Montmello zirkuituan. Testuinguru horretan, ikasleak jo eta su dabiltza piezak ahalik eta arinen prest egon daitezen: "Jai duten astean ere, etorri egingo dira ikasleak. Euren burua eskaini dute horretarako. Proiektuan inplikatuta daude. Badakite euren lana nazioarteko lehiaketa baterako dena. Konpromiso handia sortu da", dio Narbaizak.

Horregatik, posible bada, datozen urteetan ere proiektu honetan parte hartzeko prestutasuna erakutsi dute: "Mantentzea gustatuko litzaiguke. Bagenekien proiektu garrantzitsua zela, eta gure eguneroko eskolak ere hor zeudela, baina ikasleen partetik, oso erreakzio ona jaso dugu".

> **Iñaki Narbaiza:**
>
> *"Jai duten astean piezak mekanizatzen etorriko dira. Euren burua eskaini dute horretarako"*
>
> *"Bagenekien proiektu garrantzitsua zela, baina ikasleen aldetik oso erreakzio ona jaso dugu"*
>
> *"Guztira, ia 400 pieza egingo dituzte: gehienak ikastetxean bertan, baina beste batzuk fundizioan egingo ditugu"*

laguntzaileak
berrizko UDALA
Garaiko Udala
IURRETAKO ELIZATEKO UDALA
Mallabiko Udala
Otxandioko Udala
Zaldibarko Udala

Kirola

> KICKBOXINGA

“Jende asko beldurrez hasi, eta denborara, poz-pozik etortzen da”

Mack Tirado Abadiñoko Fexmack kickboxing klubeko sortzaileetako bat da

Mack Tirado Traña-Matienako erabilera anitzeko eraikinean, martitzenean gaztetxoekin izan zuen ohiko entrenamendu saioan.

DATUAK

- **Izen-abizenak:** Mack Tirado
- **Adina:** 38 urte
- **Jatorria:** Gaztela-Leon, eta egun Gasteizen bizi da
- **Kargua:** Abadiñoko Fexmack klubeko sortzaileetakoa
- **Ordutegia:** Martitzenetan, 20:00etatik 21:00etara, eta eguazten eta barikuetan, 19:00etatik 20:00etara
- **Non:** Traña-Matienan, erabilera anitzeko eraikinean

> JOSEBA DERTEANO

Kickboxingeko hainbat modalitatetan Espainiako txapelketetan parte hartuko duen Euskadiko Selekzioa nortzuek osatuko duten erabaki zen joan zen asteburuan, Abadiñon. Fexmack klubak lau ordezkari izango ditu.

Abadiñoko Fexmack taldeko lautik hiru sailkatu dira Espainiako txapelketara. Espero zenuten?

Azkenean, espero baino parte-hartzaile gehiago izan genituen. Ia lau ordu iraun zuen sailkapeneko jardunaldiak. Gu pozik gaude gure jardunagaz. Alex Henderson (15 urte) *light contact* eta *semi contact* modalitateetan sailkatu zen; Yasmin Henderson (10 urte) *semi contact*ean, eta Xabier Zubizarreta (23 urte) *full contact*ean.

Zer aukera dituzte Espainiako txapelketan?

Alexek zilarrezko domina bi eta brontzezko bat irabazi ditu azkenengo urte bietan. Badu palmaresa. Alex dominaren bat irabazteko aukerekin ikusten dut. Yasmin ere bai, bere adin tartean ez daudelako hainbeste parte-hartzaile. Xabik birritan parte hartu du *light contact* modalitatean, baina aurten *full contact*ean arituko da lehenengoz.

Euskadiko Selekzioak zer maila du, gainerako selekzioekin alderatuta?

Nik sei urte daramatzat Euskadiko Selekzioagaz. Hasiera batean, gutxi batzuk joaten ginen Espainiako Txapelketara: bat, bi edo zazpi, asko jota. Aurten, 21 joango gara, eta gainera, hainbat modalitatetan. A ze aldea! Urterik urtera gorantza goaz. Dena dela, bereizketa bat egin beharra dago. Egia esan, jende asko dabil Euskadin kickboxinga estraofizialki praktikatzen. Bakoitzak bere bidea aukeratzen du. Guk legalitatearen bidea aukeratu dugu.

Euskadik badu kickboxing federaziorik?

Ez, Euskadik ez du kickboxing federaziorik. Badaukagu elkarte bat sortuta Euskadiko hainbat taldegaz, eta Madrilgo Federazioak bere barruan hartu gaitu. Bide hori erabilita dugu lotura Espainiako Federazioagaz, eta haren barruko txapelketekin. Legalitatearen barruan gaude. Gure kirolariek irabazten dituzten tituluek, lortzen dituzten gerrikoek… Denek dute Kirol Batzorde Nazionalaren onespena.

Euskadin federazio bat sortzea gaitz ikusten duzu?

Bagabiltza bide horretan lanean, baina Euskadin edozein federazio sortzeko eskakizunen artean daude, besteak beste, gutxienez 30 klub eta 500 lizentzia edukitzea. Hori asko da. Esaterako, Nafarroan, lau klubekin federazio bat sortu dute. Egunetik egunera federazio baten sorrera hurrago ikusten dut, baina oraindino, bide luzea dago egiteko.

Epaileen zuzendari teknikoa zara. Epaileen lanak zer garrantzia du kirol honetan?

Hona etorri nintzenean, Juan Carlos Blancok (Euskadiko elkarteko presidentea) bultzatuta onartu nuen kargua. Izan ere, Euskadin dagoen arazo handienetako bat da, ia ez dagoela epailerik. Badatoz, baina apurka-apurka. Joan zen asteburuan Abadiñon epaile aritu ziren gazte askorentzako lehen aldia izan zen, eta harrituta geratu nintzen erakutsi zuten mailarekin. Arbitrajea kirol ororen oinarria da. Arbitrajeak huts egiten badu, alferrik gabiltza. Alde horretatik, oso pozik utzi ninduen Abadiñon aritu zirenen mailak.

> “*Normaltasunez ikusten ditut jendearen erreparoak, baina sei urtean lesio bakarra izan dugu*”

> “*Esfortzu handirik barik, norberaren burua defendatzen ikasi daiteke, dibertituz gainera*”

Noiz sortu zenuten Abadiñoko Fexmack kluba?

Iazko abuztuan. Traña-Matienako Zeus gimnasioa eskaini zidaten eskolak emateko, eta horrela hasi ginen. Orain, erabilera anitzeko kiroldegian ematen ditugu eskolak. Ordutegi aldetik, malgutasun handiagoa dugu. Gura dutenentzako zabalik dago kluba, baina apur bat familia giroa mantentzen saiatzen gara, hori delako entrenamenduetarako girorik egokiena.

Zer aurkituko du klubera batzen denak?

Kirola praktikatu, eta esfortzu handirik barik, bere burua defendatzen ikasiko du, dibertituz gainera. Ez dago inor kolpatu beharrik. Gaztetxoetan, batez ere, dena oso kontrolatuta dago. *Light contact*ean, esaterako, burua oso babestuta dago, epaileek berehala mozten dituzte kolpe horiek. Jende asko beldurrez hasi, eta denborara, poz-pozik etortzen da.

Nekagarria da estereotipoen kontra kickboxinga etengabe defendatu beharra?

Entrenatzaile naizen aldetik, normaltasunez ikusten ditut jendearen erreparoak. Neu ere, kirol honetan hasi nintzenean, beldurtuta hasi nintzen. Beraz, normala da. Baina guk sei urtean lesio bakarra izan dugu eta, ostera, zenbat bider entzuten ote ditugu futbolean edo beste kirol askotan jokatuz lesionatu direnen istorioak!

Iaz, Poli Diaz boxeolari ohia ekarri zenuten Traña-Matienara ikastaro bat ematera.

Bai, eta oso ondo egon zen. Bera adeitsu agertu zen, eta guk euskal txapelagaz egindako oroigarri bat eman genion. Traña-Matienako jaietan beste norbait ekartzea gustatuko litzaiguke, boxeo edo kickboxing arlokoa. Munduko txapeldunen bat edo… Ikusiko dugu. Oraindino, asmoa asmoa baino ez da.

> DUATLOIA

Gurutze Frades eta Iurgi Etxeandia dira faborito biharko duatloian

Durangoko VII. Duatloi Laburrak 300 parte-hartzaile inguru batuko ditu bihar, Durangon; gizonetan, Etxeandiaz gainera, Mugarrako Oier Ariznabarreta durangarra ere sasoi betean helduko da

Aurten, 300 parte-hartzaile inguruk parte hartuko dute duatloian. Kepa Aginako

> JOSEBA DERTEANO

Durangoko VII. Duatloi Laburra (Gorka Uribeetxeberriaren oroimenezko bigarrena) jokatuko dute bihar, Durangon, Ezkurdin hasita. Atzo itxi zuten aurtengo izena emateko epea, eta parte hartuko duten 300 bat duatletetatik, izen bi nabarmendu daitezke faboritoen artean: Gurutze Frades (MugarraTT) emakumeetan, eta Iurgi Etxeandia (Extrem Zornotza) gizonetan.

Aurten, berriro ere, Durangon erabakiko da distantzia laburreko duatloien Euskal Herriko txapelduna. Emakumeetan, iaz Durangon bertan irabazitako txapela berritzeko faborito argia da Frades iurretarra. Gizonetan, zabalagoa da hautagaien zerrenda. Iurgi Etxeandia goi mailan dabil, eta Mungiako eta Barakaldoko duatloiak irabazi ditu; Sopelakoan, bigarren sailkatu zen. Oier Ariznabarreta durangarra ere adorez beteta dago; joan zen zapatuan, Eibarko duatloia irabazi zuen eta, hurrengo egunean, bigarren amaitu zuen *Zuzenien* kilometro bertikala, Iñigo Larizen atzetik. Gainera, orain asteburu bi, Barakaldon, oso garesti ipini zion garaipena Etxeandiari, eta bigarren sailkatu zen, irabazlearengandik segundo bira.

Ikusi egin beharko da bizikletako tartean —Kanpazar igoko dute aurten, Miota igo beharrean— zer errendimendu eskaintzen duen Ariznabarretak. Talde bereko Gorka Bizkarrak ere badaki aurten podiumera igotzea zer den: Galizanon (Kantabria), hirugarren amaitu zuen. Antxintxika triatloi taldeko Ander Agirre ere faboritoen zerrendan dago. Mungian, bigarren sailkatu zen, Etxeandariarengandik zazpi segundora, eta Sopelan hiru segundoko aldea bakarrik egon zen bien artean.

Ibilbide berria korrika

Duatloiaren aurtengo nobedade nagusia arineketan egiteko ibilbidean dago. Trena lurpetik doanez, arineketan egiteko ibilbide osoa herrigunean zehar igarotzeko moduan diseinatu dute antolatzaileek: Landako etorbidea, atletismo pistako bidegorria, Muruetatorre, Mikeldi, Frai Juan Zumarraga, eta Askatasun etorbidetik pasako da. Kalera irten eta duatletak animatzeko deia egin dute Mugarrako kideek.

ORDUTEGIA

- **11:00etatik aurrera:** infantil, kimu eta benjamin mailako probak Ezkurditik.
- **15:00etan:** emakumeen duatloia. Ordu laurden geroago, gizonena, Ezkurditik.
- **18:00 inguruan:** sari banaketa.

ADITUAREN TXOKOA

Kepa Arroitajauregi

Pilota teknikaria

Pablito

Hamabost urte dira berriztarra profesional mailan daukagula, baina beste ia horrenbeste dira pilotari modura ezagutu nuela. Eta pilotari esaten dudanean, berbak duen esangura guztiarekin esan nahi dut.

Oraindik gogoan daukat *Pablito* —askorentzat beti izango da hala— Berrizko pilotaleku zaharrean, frontiseko beheko txapara ia heldu ere egiten ez zenean, nolako jokoa kantxaratzen zuen. Umetatik pilotan jokatzeko jakin beharreko dena jakin izan du.

Barruan ikasitakoaz zein kanpoan (aldagelatan), ehundaka pilotari beteranori entzundakoaz egin da pilotari; lehen mailako pilotari.

Une gogorrak pasa izan ditu, kirol alorrean zein arlo pertsonalean, baina aurre egin die denei, eta unerik gozoenak bizitzen dabil azkenaldi honetan.

Emaitzak hobeak edo eskasagoak izan, bere jokoa goraipatu beharrekoa da. Artista da Pablito, kirolaria baino gehiago pilotaria, ikuslearengana erraz heltzen den horietakoa. Seguruenik, bera den guztia pilotari zor dio berriztarrak, baina pilota ere zorretan dago berarekin. Erakustaldi gogoangarriak eman dizkigu, eta seguru emango dizkigula aurrerantzean ere, nahiz eta tamalez, gehiago emateko aukerak pasatzen utzi dituen.

Binakako txapelketan aukera gutxi du. Kanpoan geratuz gero, udako torneoak begiz joko ditu, buruz burukoa ez baita berarentzat.

Grupo CATALANA OCCIDENTE
RUEDA BILBAO ASEGUROAK
Jabier Rueda
Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 - Faxa: 94 681 65 77
e-maila: jrueda@segurosbilbao.com

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria
ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK
muruetatorre 2C blokea, behea - 48200 Durango - Tel.: 94 681 99 51

> TXIRRINDULARITZA

Onenek Emakumeen Bira lehenetsi dute Estatu Batuetako probaren aurretik

Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak egun berean ipini zituen itzuli biak; kategoria baxuagoa duen arren, talderik garrantzitsuenek Emakumeen Birara etorriko direla konfirmatu dute

Emakumeen Bira ekainaren 6tik 9ra mantenduko dute aurten.

> JOSEBA DERTEANO

Iazko urrian, Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak (TNB) 2012/13ko egutegia bidali zienean, aho bete hortz geratu ziren Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteko kideak. Alde batetik, HC (Hors Catégorie) izeneko maila berri bat sortu zutela ikusi zuten, denetan mailarik gorena, eta Bira emakumeen txirrindularitzan erreferente nagusienetakoa den arren, inork ez ziela, gutxienez, maila berri horretan sartzea interesatuko litzaiekeen kontsultatu. Hori gutxi balitz, HC mailako itzuli bat —AEBetako Exergy Tour— Emakumeen Birako egun berdinetan ipini zuten. Erabaki horrek zuzenean eragiten dio Durangoko Klasikari ere, egun gutxi batzuk lehenago lehiatzen delako.

Elkarte biek gutun bat idatzi zioten TNBri euren haserrea erakusteko eta Durangoko Klasikako zein Emakumeen Birako datak pare bat aste aurreratu zitzaten eskatuz. Erantzunaren zain zeudela gauzatu zen ustekabekoa. Emakumeen Bira AEBetakoa baino kategoria bat baxuagokoa den arren —2.1 kategoria du— talderik garrantzitsuenek Birarako euren konfirmazioa eman zuten apurka-apurka. Ondorioz, ez dute datarik aldatuko, eta ekainaren 6tik 9ra mantenduko dute; Durangoko Klasika, berriz, ekainaren 4an izango da.

TNBren sailkapeneko hamar talderik indartsuenetatik zazpik Emakumeen Bira lehenetsi dute, tartean, sailkapeneko aurreneko laurek: Rabo Women, Lululemon, Orica-Ais eta Hitec Products taldeek. Nahiz eta Lululemon AEBetako taldea izan, Birara etorriko da.

Txirrindulari onenak datoz

Txirridulariei dagokionez ere, beste hainbeste esan daiteke. Emma Johansson, Annemiek Van Vleuten, Evelyn Stevens, Ina Teutenberg eta Truxi Worrack etorriko dira, besteak beste. Denak sailkapeneko hamar onenen artean daude. Munduko onena den Marianne Vos ez da etorriko, aurten mountain-bikeagaz dabilelako. Iazko irabazle Judit Arndtek, ostera, txirrindularitza utzi du.

Denbora honetan, txirrindularien mezu zuzenak ere jaso dituzte. Van Vleutenek "oso lasterketa ederra" zela idatzi zien eta "aurten ere bertan lehiatzeko gogo handiekin" dagoela.

> MENDI LASTERKETAK

Iturrieta laugarren TransGrancanarian

Iturrieta: "Oso sentsazio onak izan ditut; 30. postuan amaitu izan banu ere, pozik nengoke"

TransGrancanaria ultratraila laugarren amaitu zuen Zigor Iturrietak joan zen asteburuan. 119 kilometroko lasterketa "aldrebesa" izan zela dio Iturrietak. Hala ere, oso pozik dago: "Oso sentsazio onak izan ditut. 30. postuan amaitu izan banu ere, pozik nengoke". Aurten, hilabete gutxiagoko prestaketagaz joan da, eta horregatik, orain urte bi TransGrancanaria irabazi zuen eubarrak ohi baino lasaiago hartzea erabaki zuen hasieratik-hasieratik.

Ezusteko bati baino gehiagori aurre egin beharra izan zion Iturrietak. Esaterako, 35. kilometroan Aitor Leal irundarra topatu zuen, gauez eta argi barik. Ondorioz, beragaz egin zituen sei bat kilometro, kontrol gune batera heldu arte. Gauez euriak eta haize boladek zaildu egin zuten parte-hartzaile denen jarduna. Iurretako Zaldai mendi taldeko Iban Uribetxebarriak, Gorka Ingunzak eta Liher Aiartzaguenak ere parte hartu zuten, eta hirurek lortu zuten proba amaitzea.

Azpeitian, Lariz garaile

Bestalde, joan zen asteburuan Azpeitian hasi zen Euskal Herriko igoera bertikalen zirkuitua, *Zuzenien* lasterketagaz. Mugarra Triatloi Taldeko Iñigo Lariz elgoibartarrak irabazi zuen, eta Oier Ariznabarreta taldekide durangarra bigarren geratu zen, gainera. Minutu erdira helmugaratu zen durangarra.

> PILOTA

Praderak ezingo du jantzi laugarren txapela segidan

Azken hiru urteetan emakumeen Euskal Herriko Gomazko Paleta Irekia irabazi duten Itsaso Pradera mallabitarra eta Laura Saez gasteiztarra aurtengo finaletik kanpora geratu dira. Bata bestearen atzetik 22 partidu irabazita zeuden txapelketa horretan. Iurretako Olaburu pilotalekuan finalerdi kaskarra jokatu zuten, eta 21-30 galdu zuten Agirreren eta Etxanizen aurka. Partidu hasieran ihes egin zieten aurkariek, eta gero, ezin izan zuten alderik jan.

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Gatika
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

LEHENENGO ERREGIONALA

Berriz - Plentzia
· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

Zaldua - Iraultza
· Domekan, 17:00etan, Solobarrian

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Zorrontzako
· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B - Mungia B
· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

> ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Elorrioko Buskantza - Sasikoa Durango
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoko Gaztetxie - Elorrioko B
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian

Dantzari - Beseka
· Zapatuan, 17:30ean, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan

Sapuberri - Iturriondo Zurbaranbarri
· Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Atxure Bakio
· Domekan, 11:00etan, Landako kiroldegian

> SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako Baque - Lagunak
· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Ilarduya - Bera Bera
· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan

> PILOTA

BIHARKO IZARRAK PILOTA TXAPELKETA

- Jaka-Rezusta / Olaetxea-Lasa
- Ansotegi-Galarza / Urretabizkaia-Etxamendi
· Zapatuan, 17:00etan, Mallabiko pilotalekuan

Inmobiliariak

AMBOTO INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, behea • 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Ask.etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak alokairuan

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ARTEKALE: 8 etxebizitzen eraikuntza hastera goaz. 2 logela eta logela bakarrekoak. Trastelekuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berriztatzeko. 114.000€.
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan dago.

EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lur zati, bakoitzean familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Familia biko etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatuak eraikitzen.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab…

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelatxoa.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
- ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatzeko. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
